

Bullying-a eta

LGTBI+

kolektiboaren

kontrako

indarkeria

arautu gabeko

heziketaren

esparruan

LGTB FOBLA

GELDI



***Bullying-a* eta LGTBI+
kolektiboaren kontrako
indarkeria **arautu gabeko**
heziketaren esparruan**

Data: Abenduak 2016

Egileak: Lala Mujika Flores

Kontzeptua eta koordinazioa:



ALDARTE

Gay, lesbiana eta transexualen atenzio zentroa

www.aldarte.org aldarte@aldarte.org

944237296

Laguntzaileak:



*enplegua, gizarte inklusioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
inclusión social e igualdad*

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Gaiaren hautaketa	6
Hurbilketa kontzeptualak	8
Jardun Egokiak	12
Kasuen azterketa	15
1. jendartean nadita baztertu duren neska	16
2. ez diote berak nah duen izenez deitzen	21
Amaitzeko	25
Baliabideak	26

Aurkezpena

ALDARTE –Gay, Lesbiana eta Transexualen arretarako Zentroa– irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta 1994az geroztik ari da lanean sexu- eta genero-aniztasunaren alorrean. Ildo horretan, LGTBI+ kolektiboarekiko aurreiritziek eta tolerantzia ezak eragindako gatazkak konpontzeko irtenbideak sortu eta osatze aldera, zenbait baliabide prestatu –arretarako, hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako– eta jendarte zabalaren esku jarri ditu.¹.

Zer lortu nahi dugu gidaliburu honekin?:

- a) Ikuspuntuak, enfokeak, proposamenak eta baliabideak eskain nahi ditugu, arautu gabeko heziketaren alorrean diharduten pertsonen – profesionalak zein boluntarioak– esku hartzea hobetzeko
- b) Zenbait arazo soziali erantzun nahi diegu (LGTBIfobia, esaterako), esanguratsuak izan arren ez ohi direlako lantzen arautu gabeko heziketan.
- c) Gogoeta bultzatu nahi dugu eta ekimen eta esperientzia zehatzak sustatu, pertsona LGTBlen errealitatea hobetze aldera arautu gabeko heziketaren alorrean.

Norentzat ari gara?:

Oro har, arautu gabekoaren esparru horretan ume eta gazteekin ari diren hezitzaileentzat: aisialdiko taldeak, kultur zentroak, babespeko etxeak, gaztegunek, ludotekak, kirol elkarteak etab.

¹LGTBI: Akronimo horrek barnean hartzen ditu Lesbianak, Gayak, Transexualak eta Intersexualak. Akronimo laburtua erabiltzen dugu, nazioartean hedatuen dagoenarekin bat datorrelako, baina horrek ez du esan nahi gidaliburu honetan kontuan hartzen ez denik gaur egungo jendartean dagoenen sexu- eta genero-aniztasun zabala. .

Gaiaren hautaketa



LGTBI+ kolektiboak eskubideak bereganatu dituen neurrian eta sozialki eta kulturalki ikusgai bilakatu den neurrian, jendarteak onartu egin du arazoa ez dela sexu- eta genero-aniztasuna eta eztabaidatu eta jorratu beharreko auzia LGTBIfobia dela, ***hori baita trabarik nagusiena benetako berdintasuna lortzeko, eta bide luzea dugu, oraindik, zinezko berdintasun hori erdiesteko***

LGTBIfobia uste baino askoz errotuago dago gure jendartean, eta horretaz ohartzeko nahikoa da erreparatzea kolektibo horren kontrako indarkeria gero eta handiagoari; maiz gertatzen dira, besteak beste, irainak, eraso fisikoak, mehatxuak, etsakeria eta eskola jazarpena edo *bullying* kasuak. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2015eko azaroan egindako berdintasun diagnostikoak agertzen duenez, gazteen %70,6k entzun ditu pertsona LGTBlen kontrako irainak, mehatxuak eta bestelako erasoak bere ikasketa inguruetan. Dirudenez, homofobia nagusi da ikastetxeetan, hala adierazten baitute Euskal Autonomi Elkartera egokitutako txostenek (IVEI-ISEI, Berdindu, etab.).

LGTBlen kontrako *bullyinga* pil-pilean dagoen gaia da gaur egun, eta errealitate hori ikusarazi egiten da. ***ALDARTEn ondo dakigu berdinen arteko tratu txarrez edo LGTBlen kontrako bullyingaz hitz egiten denean hezkuntza sare publiko nahiz pribatuko ikastetxeetan gertatzen dena hartzen dela kontuan nagusiki; izan ere, esparru horretara mugatzen dira errealitate horretaz egiten diren ikerketa eta diagnostikoak.*** Era berean, modu askotako baliabideak erabiltzen dira hezkuntza alor arautuan prebentzio- esku hartze- eta prestakuntza-programak abiarazteko (baliabide horien adibide dira, besteak beste, Berdindu Eskolak-ek eskaintzen dituen lantegiak, sexu heziketarako programak (Esangura, adibidez) edota indarkeria sexista saihestekoak (BeldurBarik etab.). ***Albaina, gutxitan –inoiz ere ez esatearren– ekiten zaio LGTBlen kontrako bullyingari arautu gabeko heziketaren alorrean.***

ALDARTEn sarritan jaso ditugu arautu gabeko heziketaren alorrean dihardutenen laguntza- arreta- eta prestakuntza-eskariak, eta adierazi egin digute LGTBIfobia egoerak agertzen direnean arazo handiak izan ohi dituztela horretan ari diren profesionalek eta boluntarioek. Egoera horien aurrean, askotan, nola jokatu behar den argi ezarrita ez dagoenez, hezitzaileek ez dakite ondo zein rol jokatu behar duten, ez baitago zehazturik.

ALDARTEN uste dugu gogoeta egin behar dela eta eragileen arteko iritzi- eta jakintza-elkartruckerako espazioak behar direla, egoera horiek identifikatu eta aztertzeko. Uste dugu ikusarazi behar dela zer garrantzi duen arautu gabeko heziketa alorrean esku hartzeak LGTBlen kontrako *bullyinga* saihesteko edota horretan esku hartzeko, pertsona eta erakunde ugari ari baitira esparru horretan.

Horrexegatik ekin diogu gidaliburu hau osatzeari, arautu gabeko heziketaren esparruan gertatzen den LGTBfobiaren eta eraso homofobiko, lesfobiko eta transfobikoen kontra. Heziketa erakundeak dira adin txikikoen eta gazteen jendarteratze-gune nagusienetakoak, eta uste dugu bizitzaren garai horretan garrantzitsua dela arautu gabeko heziketaren esparrua (aisialdiko taldeak, kultur guneak, gaztegunek, ludotekak, kirol elkarteak, auzo eta herri elkarteak...) pertsonak hazi eta garatzeko.

Eman lezake LGTBfobia eskoletan, ikastetxeetan eta unibertsitateetan bakarrik agertzen dela, baina ez da hala, eta, araututako heziketa-inguru horietatik harago, elkarbizitzarako arazoak bizi dituen testuinguru zabalago batean kokatu behar da; horrez gain, era askotako gatazken parte ere izaten da (borrokaldiak, oldarkortasuna, genero indarkeria, arrazagatiko liskarrak etab.).

Bestalde, arautu gabeko esku hartze alor horiek dira, seguruena, adin txikikoen eta gazteen berezko inguruneetatik gertuen daudenak; horrexegatik dira egokienak LGTBlen kontrako *bullying* egoerak antzemateko eta gertutasun eta konfiantza harremanen bitartez horietan esku hartzeko.

Pertsonak askotarikoak gara bai gure gorputzei baita ezagutza-gaitasunei dagokienez: askotarikoak, gustuetan eta pentsatzeko moduetan, hala nola sexualitateri, parte gareneko familiei eta generoa koloreztatzeko moduari dagokionez.

Aniztasuna bizitzen ikastea jendartean bizitzen ikastea da, sufrimendua, berdintasunik eza eta gatazkak sortzen dituzten bazterkeria eta gehiegikeriak prebenitzen ikastea. Irainak, isekak, indarkeria edo bazterkeria gertatzen direneko egoerak, beraz, aniztasuna eta elkarbizitza lantzeko aukerak ere badira

Hurbilketa kontzeptualak

Arautu gabeko heziketaren esparrua:

Hezkuntza sistema araututik kanpoko heziketa-jarduerak garatzen direneko esparrua; adibidez, eskolatu gabeko ume eta gazteen oinarrizko heziketarako ekintzak, eguneroko bizitzarako behar diren gaitasunak eskuratzea edo gaitasun profesionalak eta kultura orokorra eskuratzea.

Hurrengo hauek dira arautu gabeko heziketa esparruko alor nagusiak (adin txikikoei eta gazteei dagokienez)²: ingurumen-hezkuntza, heziketa soziala, okupazionala, aisialdikoa, osasunerako eta kontsumorako heziketa, animazio soziokulturala, bakerako heziketa, balore demokratikoetan eta kulturartekotasunean hezteko alorra, eta, azkenik, sexu- eta genero-aniztasunean heztekoa gehituko genuke


LGBTIfobia: homofobia, lesbofobia, transfobia,...

Pertsona LGTBlekiko beldurra edo/eta gaitzespena da LGTBIfobia, baita halakoen itxura dutenekikoa edo halakoekin lotzen direnekikoa, lotura hori erreal edo irudikatutakoa izanik ere.³ Barne hartzen ditu pertsona LGTBlekiko indarkeria, bazterkeria, gorrotoa, gaitzespena, oldarkortasuna eta bestelako jarrera negatibo oro. Ez da norbanakoen fenomeno soilik, LGTBIfobiak, gehienetan, bazterketa, kriminalizatzeko, patologizatze eta estigmatizatze modu instituzionalizatuetan baitu oinarria.

LGTBIfobia zenbait modutan ager daiteke: indarkeria fisikoa zein psikikoa, gorroto-delituak, gorroto-diskurtsoak, irainak, bazterkeria edo


² Mariño, G, Cendales, L. "Educación No Formal y Educación Popular", Federación Internacional de Fe y Alegría, 2004. [Sarean](#) eskura daiteke

³ Raquel Platero Mendez eta Emilio Gómez Ceto, Herramientas para combatir el bullying homofóbico, Ed. Talasa, Madril, 2008. 221. or.




pertsona LGBTBlak hedabideetan etsaikeriaz edo modu estereotipatuan ikusaraztea

LGTBlen kontrako bullyinga indarkeria mota jakin bati dagokio, eta elementu hauek definitzen dute⁴: nahitakoa da, egoera okerragoan daudenen, botere txikiagoa dutenen edo beren burua benetan babestu ezin dutenen kontra bideratzen da, eta **errepikatu egiten da, behin eta berriro, sistematikoki**




Sexu aniztasuna

Aniztasuna da gizakion eta gure sexualitatearen ezaugarri nagusietako bat. Gizakion sexualitatea, batez ere, bizia eta aldakorra da. Berezkoa eta naturala heterosexualitatea dela baieztatzen duten argudioen aurrean, gertaerek agertzen dute aniztasuna dela naturala. Norbait genero bereko pertsonak xarmatzea bezain ohikoa da beste genero batekoek xarmatzea, edo generoa gorabehera xarmatzea baten batek, edo inork ez xarmatzea.





Oro heterosexuala delako ustea saihestu beharko genuke, hau da, ez genuke beti pentsatu behar aurrean dugun pertsona heterosexuala dela. Uste horrek eramaten gaitu burua zabalik ez edukitzera sexu-aniztasunaren aurrean: ikusi ere ez dugu egiten, ez gara horretaz ohartzen bizi garen inguruetan



Genero aniztasuna

Jaiotzen garenean sexu bat (gizonezkoa edo emakumezkoa) esleitzen digute, eta, horrekin batera, genero-nortasun bat eta rol femenino edo maskulino horien arabera kulturalki egokitzen jotzen diren jokamoldeak. **Baina pertsona batzuk ez datoz bat jaiotzean esleitu zitzaizen generoarekin; pertsona trans esaten diegu horiei.** Zenbaitetan, pertsona trans horiek aldatu egiten dituzte euren gorputza, itxura edo/eta mugitzeko eta komunikatzeko moduak, ahalik eta gehien bat egiteko beren jendartearen ustez gizonezkoek edo emakumezkoek izan behar duten itxura horrekin. Beste kasu batzuetan, ordea, gerta daiteke pertsona batek genero jakin batekin bat ez egitea eta jarrera anbiguoagoa bizi izatea sentitzen duen generoarekiko.



⁴ ARARTEKO, Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn, Ararteko 2012. [Sarean](#) eskura daiteke.

Beste zenbait pertsona eroso daude beren genero-nortasunarekin (emakume edo gizon izate horrekin), eta ez dute aldatu nahi, baina ez diete men egiten nagusi diren maskulinitasun edo emetasun araei. Hau da, pertsona horiek ez dira trans, baina euren genero-adierazpena ez da izango haiengandik espero dena gizon edo emakume diren aldetik. Garrantzitsua da, beraz, kontuan hartzea esleitutako generoaren araei men ez egiteak ez duela halabeharrez esan nahi pertsona hori LGBTBI+ dela.

Ser berezitasun du LGBTBIfobiak, indarkeria den aldetik?

LGBTBIfobiak dituen osagaietako batzuk, seguruen, ez dira hain ohikoak bazterkeriaren jatorria arraza, etnia, gorputza edo erlijioa denean.

- **Ikusezintasuna:** oro heterosexuala delako ustearen eraginez, ez dugu kontuan hartzen gure ingurunean badaudela pertsona LGBTBIak; beraz, LGBTBIfobia gertatzen denean ez da ikusten, edo, horretaz ohartuta ere, ez da indarkeriatzat edo bereizkeriatzat jotzen
- **Jarraitua izatea denboran eta eguneroko bizitza garatzen den espazioetan:** Bestelako indarkeria motekin gertatzen ez den bezala, pertsona LGBTBIek une oro eta beren eguneroko bizitzaren jendarteratze espazio guztietan paira ditzakete gaitzespena eta indarkeria: ikastetxeetan, kalean, komunikabideetan, lagun taldeetan, kirol elkarteetan, erlijio taldeetan, lantokietan...
- **Isiltasuna:** Kasu askotan, pertsona LGBTBIek ez dituzte jasaten dituzten indarkeriak azaltzen etxean edo lagunartean, susmoa baitute ez dutela behar duten laguntza aurkituko.
- **Erljio sinismenak, iritzi politikoak eta tradizio kulturalak:** Sarritan, erlijio sinismenek, iritzi politikoek eta tradizio kulturalak justifikatu egiten dute LGBTBI kolektiboaren kontrako indarkeria.
- Errealitate horren aurrean, ohartu behar gara uka ezin daitezkeen eskubideak direla nork bere sexua eta generoa garatzeko **eskubidea eta indarkeriarik gabeko bizimodu duina izatekoa, eta sinesmen, iritzi edo tradizio ororen gaintik daudela.**
- **Estigma kutsatzea:** LGBTBI diren pertsonen kontrako bazterkeria, irainak edo indarkeria gertatzen direnean, suerta daiteke homofobia edo transfobiaren biktima diren pertsona horien alde agertzen

direnek ere jasatea jazarpena. Egoera horiek areagotu egiten dute biktimen isolamendua eta bazterketa, zenbait pertsona heterosexualen laguntza eta babesa galaraz baitezakete, heterosexual horiek ez dutelako nahi besteek pentsa dezaten eurak ere LGBTBI direnik. Horrela bada, homofobia eta transfobiagatiko jazarpenaren biktima izateko motibo bilaka daiteke pertsona LGBTBlekin harremana izatea edo haien adiskide izatea



LGTBIfobia saihesteko jardun egokiak, arautu gabeko heziketa inguruneetan

1

Ez ezazu aurreuposatu zure inguruko pertsonak heterosexualak direla, ezta zein generotakoak diren ere ez: seguruen egongo da zure inguruan pertsona LGBTIren bat; itxurak gorabehera, denak ez dira zertan heterosexualak izan, denek ez dute zertan bat egin gizon edo emakume generoarekin. Erabilezazu jendartearen ikuspegi zabal eta askotarikoa; pertsona guztien arteko adiskidetasun- eta maitasun-agerpenen edota genero-adierazpen ugarien alde ager zaitez, eta bultza itzazu; galde ezazu aurrean duzun horren orientazio sexuala edo generoa zein den, hala beharrezkoa denean.

2

Ez itzazu multzo berean sar pertsona LGBTI+ guztien bizitza esperientziak. Modu asko dago gay, lesbiana, trans, bisexual edo intersexuala izateko. Kolokan jar itzazu estereotipoak, eta egin ezazu hausnar LGBTIren errealitatearekin lotzen dituzun kontzeptuez eta gertakizunez. Saia zaitez ez erabiltzen sexualitatea eta generoa mugatzen eta murrizten dituzten etiketak, pertsonak modu askotara bizi baitituzte generoa eta sexualitatea euren bizitzan zehar. Kontuan har itzazu egoera eta antolamendu sozial desberdinek dituzten berezitasunak: gazte izan edo nagusia izan, immigrantea edo bertakoa, gay edo lesbiana, ahalmen urritasunen bat izan edo ez, ekonomikoki egoera txarra bizi edo ez, etab.

3

Bazter ezazu, batez ere, pertsona trans eta intersexualenganako begirada mediko psikiatritzatua. Ez daude gaixo, ez dute inolako buru nahasmendurik. Era berean, ez ezazu pentsa horiek duten irtenbide nagusi edo bakarra hormonak hartzea eta ebakuntza egitea denik. Gogoan izan gertakizun medikoak edo psikiatrikoak baino gehiago auzi sozial eta kulturalak direla transexualitatea eta intersexualitatea, eragin handia baitu jendarteak generoei, sexuei eta gorputzei buruz zer pentsatzen duen.

4

Beti da interesgarria antzematea zer aurreiritzi, mito eta sinesmen oker dagoen pertsona LGTBlei buruz, bai norberarengan, baita ingurukoengan ere. Homofobiak eta transfobiak pertsona guztiei eragiten diete, ez bakarrik pertsona LGTBlei. Denok hezi gaituzte sexismo eta LGTBIfobia usteetan.

Horri dagokionez, baliteke adin txikiko askok aurreiritziak izatea beste irtenbiderik ez topatzea, euren bizitza laburrean jaso dituzten informazio guztiek okertzat jo baitituzte pertsona LGTBiak. Adin txikiko horiek uler ditzagun eta estima ditzagun beharko dute, eta ez haien jarreretik eta jarduteko moduekiko tolerantzia. Lan berariazkoa beharko dute ikusarazteko euren jarrerak eta jardunbideak ez direla egokiak ikaskideekin aritzerakoan.

5

Aniztasuna errespetatzen ez duten esanen eta jarreraren aurrean, ez isildu. Baina ez ezazu besterik gabe debekatu edo zentsuratu, sarritan egin ohi dugun moduan. Hezitzaileak garen neurrian, arazoan muinera jo behar dugu. Entzun ezazu, saia zaituz ulertzen eta ulertarazten, jarri zalantzan jarrera eta uste horiek eta eztabaida itzazu. Seinala itzazu asertibitatez jarrera LGTBIfoboak, eta erakutsi zer eragin duten pertsonengan eta jendartean.

6

Izan zaituz aniztasunaren erreferente: LGTBI+ taldekoa bazara, gogoan har ezazu hori ikusarazteko aukera. Ez bazara kolektibo horretakoa, sor ezazu giro egokia pertsona guztiak askatasunez – zeu mintzatzen zaren askatasun berberaz– mintza daitez beren aukera sexualez eta genero-nortasunaz.

7

Errespetatu itzazu intimitatea eta konfidentzialtasuna: nor bere momentuak eta bere tokiak ditu mintzatzeko bere afektibitateaz, bere desirez eta bere generoaren eta sexualitatearen inguruan bizi izan dituen prozesuez.


HIZKERARI DAGOKIONEZ

- a) Erabil ezazu hizkera inklusiboa, entzuten zaituzten guzti-guztiak senti daitez onartuak modu positiboan. Hizkuntza anitza eta aberatsa da, eta uste baino adierazpen-aukera gehiago ematen dizkigu: erabil itzazu.

- b) Bazter itzazu esamolde LGBTIfoboak –«marikoi», «trabelo», «marimutil» etab.–, mingarriak izan baitaitezke entzuten zaituzten horietako askorentzat.
- c) Erabil ezazu binarista ez den hizkera, edo genero gabekoa: hitz egiterakoan ez erabili beti maskulinoa, erabili femeninoa ere, eta, batez ere, formulazio neutroak.
- d) Erabil ezazu hizkera ez sexista.
- e) Errespetatu ezazu pertsona ororen guraria berak bat egiten duen genero horretan hitz egin diezaioten.
- f) Erabil ezazu hizkera gertukoa eta beroa. Garrantzitsua da erantzuteko prest zaudela agertzea, bakoitzak nahi duena galde dezakeela eta galderak inoiz ez zaizkizula gogaikarriak gertatuko. Elkarrekiko konfiantza eta elkarrengandik ikasteko bidea ezartzea da helburua.
- g) Erantzun galdera egin dizunari, ez galderari berari. Sortzen dituzun elkarriketek samurrak behar dute, aurrean dituzun horien neurrikoak. Uler zaitzaten lortu behar duzu. Galdera beraren atzean pertsona desberdinak daude, esanahi eta errealitate desberdinak.

GOGORA EZAZU


LGTBI+ taldeak oso bide garrantzitsua dira integratze eta esku hartze sozialerako, hortaz, alor horretan dauden baliabideak erabili behar dira. Bila ezazu informazioa.



Egoera zehatzetan sakondu: KASUEN AZTERKETA

Urte hauetan zehar, arautu gabeko heziketaren esparruko erakunde ugariarekin lan egiteko aukera izan dugu, dela LGTBI kasu jakinetan aholkua emateko, dela sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza mintegiak antolatzeko. Horrela bada, era askotako egoerak aztertu eta landu ditugu. Horietatik guztietatik bi aukeratu ditugu hemen agertzeko, oso esanguratsuak baitira.

Badakigu adibide bi hauek nekez isla dezaketela errealitate guztiz askotarikoa dena, baina espero dugu baliagarriak izango direla jarduteko gako edo bide batzuk antzemateko. Badakigu, halaber, aurkeztuko ditugun kasu horietan agertzen direnak baino ñabardura gehiago egongo direla. Konponbideak ez dira errazak izaten. ***Gidaliburu honen helburua gogoeta kritikoa sustatzea da, beraz, gure proposamena da adibide hauek oinarri hartuta zuk zeuk lantzea horietarako balizko irtenbideak.***



1.- JENDARTEAN NAHITA BAZTERTU DUTEN NESKA

Udaleku batzuetan, berarekin talde-lanak egin ohi dituen taldetik baztertu dute Carla. Bereizte eta bakartze hori taldeko neska batek sustatu du gehien bat, Carlak adierazi baitio berarekin xarmatuta dagoela. Udalekuetan nesken artean duten harreman gertukoak bultzaturik, Carlak erabaki du, lehen aldiz, beste neska batek xarmatzen duela azaltzea. Taldeak uste du Carlak, egote hutsarekin, gogaitu eta mindu egiten duela beste neska, harekin xarmatuta zegoela esan zioneko hura.

Taldeak zuzeneko nahiz zeharkako jardunez adierazten dio bazterketa («txerri galanta zara, ez gu ukitu, ezta begiratu ere ez!» eta tankera horretako irainak; ez dira dutxara berarekin batera sartzen; saihestu egiten dute ukitzea; jarduerak egiterakoan Carla bakarrik geratzen da, etab.). Ematen duenez, udalekuak iraun bitartean iraungo dute gaitzespen-adierazpen horiek ere.

Horren eraginez, Carla guztiz bakartuta dago, eta udalekuetako beste talde batera biltzea erabakitzen du, baina ez horretan ezta gainerako taldeetan ere ez dute onartzen, guztien artean zabaldu baita zurrumurrua: «neskak gustuko dituen zikin horietako bat da». Ondorioz, baztertuta geratu da. Gainera, bazterketa hori denboran luza daiteke, eta udalekuetatik haragoko alorretara zabaldu; horrek kezka sorrarazten du beste inguru batzuetan ere, adibidez, familian eta udalekuak urtero antolatzen dituen ikastetxean. Udalekuko hezitzaileek egoera identifikatu dute eta esku hartzen saiatzen dira.

Kasuaren azterketa:

Agertu dugun egoera horretan generoak zerikusi handia du, gehien bat neskek osatutako talde batean sortutako indarkeria kasua baita; **ingurune horietan, modu sotilagoan, ez hain agerikoan,** azalera daitezke honelako egoerak, eta, beraz, errazagoa da hezitzaileak ez ohartzea, hau da, inguruan halako egoeraren bat gertatu arren haiak ez konturatzea.

Bereizketa edo bakartzea pairatzen duen pertsona neska seguruen lesbiana bat izateak aparteko interesa eransten dio egoerari, ez baita oso ohikoa neska nerabe batek beste neskekiko sentitzen duten erakarpena agerian jartzeko adorea biltzea. Gehiago zabaldu ohi dira halako kasuak mutilen artean gertatzen direnean; nesken artean gertatzen direnean, berriz, oihartzun txikiagoa izaten dute, ikusezinak izaten dira eta oharkabean pasatu ohi dira.



Kasu honen beste ezaugarrietako bat da normaltzat jotzen direla udalekuan agertzen diren zenbait jokabide, ***bai baitirudi Carlaren udalekuko kide guztiek hartzen dutela parte haren bazterketan***. Baina egoera horiei arretaz begiratuz gero, tratu txartzat har ditzakegu. Aztertzen ari garen kasuari dagokionez, lesbianen kontrako aurreiritzi nabarmenak eragindako tratu txarra.

Amaitzeko, egoera are zailagoa da bazterketa Carlaren gainerako harreman inguruetara zabal daitekeelako (auzoa, ikastetxea...).

Lehen erabaki estrategikoa

Hezitzaileek erabakitzen dute aurrera eraman beharreko estrategia dela bazterketa udalekuan bertan desaktibatzea, eta egoera horren atzean dagoen lesbofobiari arreta ematea. Kontuan hartzen dute eguneko 24 orduetan elkarrekin egoteak erraztu egiten duela gaiari heltzea.

Hezitzaileek bilera bat egiten dute eta bertan planifikatzen dituzte bazterketa-egoerari aurre egiteko zenbait ekintza. Hezitzaile guztiek batera adosten dituzte ekintzak, ez daitezen hezitzaile gutxi batzuk bakarrik izan gatazkari heltzen diotenak, ez dadin informazio kontrajarria zabaldu eta inork ez diezaion muzin egin bere erantzukizunari.

Gertatzen den egoera horretako protagonistak identifikatu:

Hasteko, egoera horretan parte hartzen duten pertsonak nor diren identifikatzeari ekiten diote hezitzaileek:

- ***Biktima:*** Carla.
- ***Liderra:*** Carlak berarekin xarmatuta dagoela esan dion neska, hark sustatu baitu Carlaren bazterketa hasierako taldean.
- ***Ikusleak:*** Udalekuko gainerako nerabeek osatzen duten kide-taldea.



Garatu beharreko ekintzen planteamendua, identifikatutako pertsonen arabera:

- a) **Biktima:** hezitzaileek **erabakitzen dute Carlarekin bakarka hitz egitea eta laguntza ematea, eta, aldi berean, taldeak sustatutako bazterketak Carlaren baitan izan duen eraginaren diagnostikoa egitea.** Hezitzaile bat izendatzen dute hura bil dadin Carlarekin, hala ikusi ahal izateko zer baliabide pertsonal abiaraz dezakeen Carlak, hala beharrezkoa balitz, ondo bizi ahal izateko bere lesbianismoa agerikoa izatea eta gai izan dadin etorkizunean etor litezkeen kalteei aurre egiteko.
- b) **Liderra:** **Carlak bere lesbianismoa agertu zuenean liderrak adierazi zuen Carlarekiko gaitzespenaren balizko zergatiak aztertu ondoren, liderrarekin biltzea erabakitzen dute hezitzaileek.** Bilera horretan, liderrarekin batera aztertzen dute zer arrazoik bultzatu duten Carlarenganako gaitzespena taldean sustatzera: lesbiana izatea zer den ez jakitea?, lesbianekiko beldurra?, Carlaren proposamenek ezeroso sentiarazi dutela eta nola erantzun ez zekiela?, Carlaren kontrako gaitzespena agertu ezean taldeak bera ere lesbianatza joko ote duten susmoa?...**Garrantzitsua da liderrari agertzea ez diotela ezer konkretu leporatzen, harekin hitz egin nahi dutela eta ulertu nahi dutela zergatik jokatu duen horrela, konturatu behar baita bere jokamoldeak kalte egin diola beste pertsona bati.** Lasaitasunez eta haserrealdirik gabe, jokamolde homofoboak zuzendu daitezkeela ulertuta, hezitzaileek ezabatu egin behar dituzte liderrak lesbianismoaz eta lesbianez izan ditzakeen aurreiritziak, beldurrak eta mitoak.
- c) **Ikusleak:** egoera horiek ikusi eta esku hartzen ez duten, edo Carlaren bazterketan laguntzen duten, pertsonak kontuan hartzearen garrantzia aztertzen dute hezitzaileek. Kasu honetan, udalekuko gainerako nerabeak dira ikusleak, eta garrantzitsua da horiek ere kontuan hartzea, zeren, nola edo hala, legitimatu egiten baitute indarkeria, eta, gehienetan, baita iraunarazi ere, beren isiltasunaren edota laguntzaren bidez. **Funtsezkoa da pertsona horiek ulertzea badutela erantzukizuna Carlarekin gertatu den hori legitimatzeko edo gaitzesteko.**

Bereizkeria kasu honi heltzerakoan, hezitzaileek erabakitzen dute ez dela komeni fokua Carlarengan jartzea biktima den aldetik, are gehiago biktimizatzea bailekarke horrek, eta adosten dute orokortze aldera jotzea eta Carlaren errealitatetik aparteko adibideak jartzea. Esku hartzeak alde aurretik pentsatu eta planifikatutako ekintza modura planteatzea adosten dute. Udalekuan garatzen dituzten ekintzak aztertzen dituzte ikusteko ea



sexu- eta genero-aniztasunaren elementuak txerta ditzaketen horietan: suaren inguruko ekintzak, ginkanak, etab.

Ondorengo ekintza hauek planteatzen dituzte hezitzaileek:

- **Udalekuko zereginak betetzeko taldeak birmoldatzea.** Taldeen osaketa eta talde-arduradunak aldatzen dituzte. Kontuan hartzen dute Carla eta liderra talde berean ez egotea.
- **Enpatiako talde-dinamikak egitea** –beste pertsonaren larruan jartzea, rol jokoak, etab.–, denek erantzun ahal izan diezaioten galdera honi: “zer sentitzen da baztertzen zaituztenean?”. Carlak eta liderrak gainerako guztien moduan hartzen dute parte.
- **Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko berriazko dinamikak egitea:** ginkana bat antolatzea non saria ostadarraren bandera izango den, protagonista nerabeak dituen LGTBI film bat ikustea, etab. Carlak eta liderrak gainerako guztien moduan hartzen dute parte.

Liderrarekin “taloaren beste aldea” dinamika garatzea:

Dinamika honetarako ezinbestekoa da **liderrak aldeko jarrera izatea eta ondo ulertzea ez duela inoiz ere botere-posiziozat hartu behar eskaintzen zaion rol berria.**

Hezitzaileek erabakitzen dute rol nagusi bat eman behar diotela liderrari: halako rol bat izan du jada txarrerako, eta orain onerako izan behar du; beraz, adosten dute liderrak bermatu beharko duela udalekuan ez dela bereizketarik egongo inolako alorrean.

Liderrarekin egiten duten bileran betebeharrak ezartzen dizkiote. **Adi egon beharko du gerta daitezkeen bereizketa-egoerak antzemateko, arrazoia edozein dela ere:** gorputza, homofobia, arraza edo etnia, etab. Bereizketarik egongo ez dela bermatu behar duenez, liderra hurbildu beharko da bazterkeria sortzen duen pertsonarengana, eta harekin hitz egin, lasai eta begirunez.

Azaltzen diote ez duela poliziarena egin behar, ez dituela izenak apuntatu behar gero horien berri emateko, ez duela inor salatuko behar... Bera lana ez da hori izango, ezpada jendea ikusaraztea udalekuan ez dagoela bereizkeriarako tokirik.



Aipatzen diote hezitzaileen laguntza izango duela, eta haiekin elkartuko dela lana zer moduz doakion ikusteko.

Ikusleen taldekoei liderraren funtzio berria azaltzen diete, eta argi uzten diete ez dutela ikusi behar beren gaineko botere-posizio batean.

Hezitzailea bazara eta LGTBI+ kolektiboko kide bazara:

Hezitzailea bazara eta LGTBI+ kolektiboko kide bazara, une egokia da nerabeen aurrean horrela agertzeko, oso lagungarria gerta baitakieke neskei zu erreferentea izatea.

Gainera, Carlarekiko elkartasuna eta enpatia ager dezakezu horrela, gay edo lesbiana izateari udalekuan eman dakioken pisuari garrantzia kenduz.

Ikastetxearekiko eta familiarekiko harremana:

Hezitzaileen taldeak ikusten du garrantzitsua dela gertatutakoaren berri ematea bai udalekua antolatzen duen ikastetxeari bai eta Carlaren eta liderraren familiei ere.

Erabakitzen dute ikastetxeari eta familiei jakinaraziko dietela zer estrategia abiatuko dituzten Carlaren kontrako bereizkeria gerarazteko. Era berean, elkarrekiko koordinazio estrategia bat antolatzen dute, udalekuan bereizkeria geraraztea lortuko ez balute hura baliatzeko.



2.- EZ DIOTE BERAK NAHI DUEN IZENEZ DEITZEN, HARIK ETA TRANSEXUALITATE-DIAGNOSTIKOA EGON ARTE

Joanak 21 urte ditu. Babespeko pisu batean dago duela bi urtetik, familiaren etxean bizi duen gatazka dela eta. Beste hiru pertonekin eta bi hezitzaileekin bizi da. Joanak diagnostikaturik du buru-nahasmendu bat. Eskola-graduatu ateratzeko ikasten ari da HHI batean (Helduen Hezkuntzarako Ikastetxea). Txikitatik sentitu du Joanak bera ez dela besteek dioten mutila; emakume sentitzen da, eta sentimendu horrek iraun egin du denboran zehar.



Joanaren kanpoko itxura bat dator jendartean erabili ohi diren maskulinitate kanoneko ezaugarriekin; hau da, ile motza du, mutilen tankerakoa, bizarra du eta jantzi maskulinoak erabiltzen ditu. Guruzetako Genero Unitatera joaten hasi da.



Joanak hala dei diezaioten nahi du, eta ez Juan, NANen agertzen den moduan. Berari femeninoan hitz egitea da Joanaren nahi handienetako bat, eta ez du lortu: ez familiaren etxean, asteburuetan hara doanean, ezta ikasten ari den HHIn. Babespeko pisuan ere eskatu du Joana dei diezaioten, baina hezitzaileek Juan deitzen diote, eta esaten diote transexualitate-diagnostikoa aurkeztu behar duela nahi baldin badu emakumetzat har dezaten eta femeninoan hitz egin diezaioten.



Joanak nahigabeturik, sumindurik eta triste bizi du egoera hori.



Kasuaren azterketa:

Kasu honetan, esku hartzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait elementu agertzen zaizkigu.



Erabiltzen ari den transexualitatearen ikusmoldea:

Hezitzaile-taldeak egoera psikiatriko eta mediko modura ulertzen du transexualitatea. Ikusmolde horren arabera, sistema medikoaren baitako gaixo bat da Joana, eta, beraz, sistema medikoari dagokio erabakitzea zein den haren benetako generoa.

Horren ondorioz, Joana ez da jada bere generoaz pentsatzeko eta horren gaineko erabakiak hartzeko gauza den subjektu aktiboa. Ikusmolde horren

arabera, susmagarritzat jotzen da norbaitek bere sexuari buruzko zalantzak izatea, normalean ez baita horrelako zalantzarik sortzen jendearengan.

Transexualitatearen pertzepzio kultural eta sozial batek ikuspuntu malguagoa emango lioke hezitzaile-taldeari, bai transexual izateari dagokionez, oro har, baita Joanaren kasu jakinean ere. Horrek generoaren ikuskera malguagoa eta askotarikoagoa ekarriko lieke, gure jendartean erabili ohi dugun bereizketa binarioaz –gizona/emakumea– haragokoa. Errazagoa litzaieke orduan ohartzea transexualitateak lotura handia duela jendarteak generoak hautemateko eta eraikitzeko dituen moduekin.

Transexualitatea pertsonen dimentsio sozial eta kultural modura hartzeak berarekin dakar pertsoneri gaitasuna onartzea nork bere generoari buruzko aukera eta erabakia hartzeko. Gure kasuan, Joanaren kasuan, ikusmolde hori lagungarria gertatuko litzaieke hezitzaileei sinesteko Joanak femeninoan hitz egin diezaioten nahi duela, ez maskulinoa erabilita.



Emakume izatearen diagnostikoa eskatzea:

Elementu hori guztiz loturik dago aurrekoarekin, diagnostikoa oinarrizko tresna baita transexualitatea gertaera psikiatriko eta medikotzat hartuz gero. ***Hezitzaileen ustez, adituek sintomak aztertu ondorengo diagnostikoak zehaztuko du zalantzarik gabe zein den Joanaren generoa.*** Segurtasun hori bilatzen dute hezitzaileek oker jokatuko ote duten beldur baitira, edo Joana nahastuko ote duten, babespeko pisuan duten gizon itxurako pertsona horri Joana deituz gero.

Diagnostikoak sinestaraziko die hezitzaileei Joana emakumea dela, ez auzi horri buruz Joanak esan eta sentitzen duenak. Diagnostikorik ez badago, berdin dio Joanak argi izatea zein genero sentitzen duen, zein genero duen.

Hezitzaileek Joanari diagnostikoa eskatu behar horretan, gogoan hartzeko zenbait alderdi dago:

1. Norberaren nortasuna errespetatua izateko eskubidea jasota dago Giza Eskubideetan, eta, aztertzen ari garen kasuan, horrek esan nahi du errespetatu behar dela Joanaren nahia partaide sentitzen den genero horrekin bat datorren genero-nortasunaren arabera hitz egin diezaioten. ***Errespetu hori argi eta garbi azaltzen da transexualitatearen euskal legea deitzen den horretan.⁵ Hezitzaileek kontuan hartu beharko lukete Joanak duen eskubide hori gauzatzea ez litzatekeela inola ere diagnostiko eskaera baten arabera izan beharko, eta hausnartu beharko lukete ez ote diren Joanaren oinarrizko eskubide bat zapaltzen ari***
2. Eskubide bat gauzatzetik harago dago hezitzaileek agertu beharko luketen enpatia Joanaren prozesuarekiko. ***Hezitzaileen lana ez luke kanpoko diagnostiko batek gidatu beharko, Joanak emakumetzat har dezaten behin eta berriro agertzen dien beharrak baizik. Laburbilduz, Joanari entzun beharko liokete, eta bere arrazoiak sinetsi.***
3. Joana Gurutzetako Genero-Unitatera joaten da, eta han, tratamenduaren lehen fasean, transexualitate-diagnostiko bat emango diote; diagnostiko horren atal bat da “benetako bizitzaren proba”, hau da, Joana emakume modura bizi beharko da bere ohiko inguruneetan, babespeko pisua barne. Ustez, proba horrek Joanaren genero-nortasuna indartuko du. Alabaina, paradoxa bada ere, transexualitate-diagnostikoa lortzeko, pisan emakume modura egin diezaioten beharko du Joanak, eta hezitzaileek ez dute hala egin nahi, hain zuzen ere diagnostikorik ez dutelako. ***Hautsi beharreko sorgin gurpil bat da. Hezitzaileek emakume modura egin beharko liokete Joanari, izen horrekin deitu, emakume izateko prozesuan laguntzeko***
4. ***Hezitzaileen eta Joanaren artean dagoen botere harremana:*** horren eraginez ez baitute Joana hartzen aukerak har ditzakeen subjektu aktibotzat. Harreman desorekatu hori saihestu beharko litzateke.

⁵ 14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/r48-bopv2/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2012003067>

Joanaren gurasoek haren errealitatea ez onartzea

Batzuetan, hezitzaileek ikusten dute gurasoek ez dutela semearen edo alabaren trans errealitatea onartzen. Horixe gertatzen zaio Joanari, etxean mutila izaten behartzen baitute, bai itxuran baita jarreran ere. Gidaliburu honetan aztertzen ari garen kasuan, ez dago familiaren eta hezitzaileen arteko desadostasunik, ez batzuek ez besteek ez baitiote Joanari Joana, femeninoan, esaten.

Baina gatazka sor daiteke hezitzaileak konturatzen direnean haien artatzen duten pertsonak eskatzen duela jaiotzearen esleitu ziotena ez den genero batean egitea. Hezitzaileek pertsona horrek sentitzen duen generokotzat hartu nahi dute, eta badakite zer garrantzi duen horrek pertsona horrentzat, baina familiak ez du horren berri edo ez du egoera onartzen. Nola jokatu halako kasuetan? Badakigu egoera ez dela samurra, baina hezitzaileek hurrengo hauek hartu beharko lituzkete kontuan:

- A. Familiak ez badu semearen edo alabaren transexualitatearen berri, gurasoekin hitz egin beharko lukete, hezitzaileak ikusten ari diren hori jakinarazteko eta auziari heltzeko garrantziaz ohartarazteko.
- B. Familiak alabaren edo semearen transexualitatea onartzen ez badu, hezitzaileek ez lukete gaia beste gabe ahaztu beharko. Gogoan hartu beharko lukete badagoela aukera adin txikiko edo nerabe horrekin berak nahi duen generoan aritzeko, haien heziketa esparruan bederen; jokamolde horrek familiarekin sor dezakeen gatazka onarturik, egon dagoen desberdintasuna babestu beharko lukete.

Transexualitatea eta buru nahasmena batera gertatzea

Biak batera agertzeak ez luke eragin beharko transexualitatea ukatzea. Ikuspuntu psikiatrikotik **ez da halakorik ukatzen, guztiz gertagarria baita buru nahasmendua eta transexualitatea batera gertatzea.**

Sarritan, ordea, buru nahasmena duten pertsona transexualek esfortzu itzela egin behar dute erakusteko beren generoaz sentitzen duten hori ez dela buru nahasmenaren ondorio. Gutxiagotan sinesten zaie, edo ez zaie batere sinesten; Joanari hori gertatzen zaio familiarekin eta babespeko pisuko hezitzaileekin (horregatik behar dute diagnostikoa).

Ez da buru osasuneko profesionala izan behar bereizteko Joanaren zein parte dagokion buru nahasmenduari eta zein transexualitateari. Arautu gabeko heziketak, sarritan, **bidea ematen du gertuko elkarbizitza gara dadin, eta aukerak eskaintzen ditu egunero elkarri entzuteko; horiek baliabide nahikoa izan beharko lukete Joanak sentitzen duen generoa zein den jakin eta onartzeko.**

Amaitzeko

Espero dugu adibide hauek baliagarriak izango zaizkizuela. Horien bitartez adierazi nahi izan dugu jardun zehatzak burutu daitezkeela arautu gabeko heziketaren alorrean. Azaldu ditugun ekintzek, baita zuek proposa ditzakezuen bestelakoek ere, eragin zuzena eta benetakoa lor dezakete, eta adierazten digute posible dela homofobiarik eta transfobiarik gabeko heziketa ez arautu baterako bidea hartzea.

Dokumentu honek jazarpenaren prebentziotik harago joan nahi du; ***heziketarako aukeratzat hartu nahi du gure jendaratean egon dagoen sexu, familia eta genero aniztasuna, ez oztopotza***



Baliabideak

Ondo dakigu heziketa baliabide ugari dagoela gaur egun LGTBIfobiari heltzeko; ezinezkoa litzaiguke denak aipatzea. Atal honetarako, aukeratu egin ditugu gidaliburu hau egiteko erabili ditugun dokumentuetako batzuen erreferentziak, baita zenbat web gunetakoak ere, horietan topatuko baituzue, seguruenik, jorratu nahi duzuen LGTBI+ egoera jakin horretara hobekien egokitzen dena.

Nolanahi ere, egunero ateratzen direnez gauza berriak, gure gomendioa da etengabe eguneratzea LGTBI+ gaiari buruzko informazioa.

Pentsatzeko liburuak

- *Dibujando el género*, Gerard Coll-Planas eta María Vidal. (Ed. EGALES)
- *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*, Raquel Platero Méndez eta Emilio Gómez Ceto (Ed. TALASA)

LGTBI+ errealitateari buruzko dokumentazioa eskaintzen duten web guneak

- www.aldarte.org,
<http://www.aldarte.org/es/documentos.asp> (euskaraz eta gaztelaniaz)
- www.ampgil.org (katalanez eta gaztelaniaz)
- www.felgtb.org (gaztelaniaz)

Filmak

LGTBIQ gaiak lantzen dituzten film, dokumental, film labur eta telebista saioei buruzko 900 artikulua baino gehiago eskaintzen dituen web gunea

- <http://www.homocine.com>

Heteroaraua gainditzeko tresna kutxa

- <http://www.arrakala.net>
- <https://www.youtube.com>